



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

Proiektuaren zenbakia: 2022-1-IE01-KA220-SCH-000089856
Proiektuaren akronimoa: AstronoMine
Proiektuaren titulu osoa: Astronomia ikasten Minecraft-en bidez

Prentsa-oharra – AstronoMine proiektuaren eguneraketa: Minecraft education-en hiru mundu garatzen, hezkuntzarako

2024ko martxoa

AstronoMine proiektua, Erasmus+ Knowledge Alliance programaren bidez finantzaturako ekimen berritzailea da. Bazkideak oso pozik dihardugu STEAM hezkuntza eraldatzeko bidean mugarri garrantzitsu bat iragarritz. Hilabete honetan, harro gaude Minecraft Education-en hiru munduren lehen bertsioak ezagutarazteaz. Garatzen ari garen Minecraft Education-eko munduak diseinatuta daude astronomiaren jakintza zoragarriari buruz ikasleak liluratzeko eta hezteko. Lehen bertsio horiek ez dira jendaurrean argitaratuko fase honetan. Horren ordez, partzuergoko bazkideok probetarako barne-prozesua egingo dugu.

Barne-probez gain, Europa osoko eskolen talde hautatu batek Minecraft-en mundu horiei buruz esperimendatzeko eta iruzkinak egiteko aukera izango du. Proben kanpoko fase hori ezinbestekoa da ezagutzak biltzeko eta hezkuntza-tresna horiek gelako ingurune erreal batean duten aplikazio praktikoa eta eragina ulertzeko.

Minecraft-en mundu horiek, gure partzuergoaren lankidetzahaleginaren bidez garatuak, murgiltze-ikaskuntzako esperientzia interaktiboa eskaintzeko diseinatuta daude. Mundu bakoitza astronomiaren alderdi desberdinetara egokitzen da, eta 10 eta 12 urte bitarteko ikasleentzako hezkuntza-bidaia integrala bermatzen du. Munduak jakin-minez diseinatuta daude, ez bakarrik irakasleentzako eskuliburuarekin bat egiteko, baita ezagutza teorikoa modu dibertigarri eta erakargarrian aplikatzeko ere.

2024ko apirilean, gure partzuergoa Grezian bilduko da mundu horiek fintzeko, bai ikuspuntu teknikotik bai hezkuntzatik. Bilera honen helburua Minecraft-en munduen lehen bertsioak leuntzea da, eta, horretarako, gure hezkuntza-edukiaren eta erabiltzailearen esperientziaren estandar handiak betetzen dituztela bermatzea. Berrikuspen- eta hobekuntza-fase intentsibo horren ondoren, mundu horiek hainbat hizkuntzatan itzultzeko funtsezko zereginari ekingo diogu, eta, hala, Europa osoan dugun eragina eta irismena zabalduko ditugu.

Europako Batzordeak argitalpen honen ekoizpenari ematen dion laguntza ez da edukiaren onespena, egileen iritziaik soilik islatzen dituen, eta Batzordea ezin da hartaz egin daitekeen ezin erabileraren erantzuletzat hartu.



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

AstronoMine proiektuak teknologia aprobetxatuko du hezkuntza-esperientziak hobetzeko. Minecraft-en mundu horiek garatzea funtsezko pausoa da gure bidaian, astronomiari buruzko ikaskuntza informatiboa ez ezik erakargarria ere izan dadin.

AstronoMine proiektuari eta gure hurrengo garapenei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu gure webgunea:

<http://AstronoMine.erasmusplus.website/>

Harremanetarako:

Daithí Ó Murchú, proiektuaren koordinatzailea
Drumcondra ikastetxea (Irlanda)

domurchu1@gmail.com

Europako Batzordeak argitalpen honen ekoizpenari ematen dion laguntza ez da edukiaren onspena, egileen iritziaz soilik islatzen dituen, eta Batzordea ezin da hartaz egin daitekeen ezein erabileraren erantzuletzat hartu.